

23

Hegemonia eta estrategia independentista

UNAI APAOLAZA AMENABAR



Aurkibidea

Hegemonia eta estrategia independentista Unai Apaolaza Amenabar

- Laburpena
- 3 Estrategia politiko garaileak
 - 5 Zertaz ari gara hegemonia diogunean? (genealogia labur bat)
 - 7 Unibertsalek, politikan, moralki ona dena adierazten dute
 - 7 Hegemonia edo partikularra(k)
unibertsal bilakatzen d(ir)eneko(k)
 - 10 Hegemonia: Unibertsalak norberari eta partikularrak
arerio politikoari egozteko gaitasuna
 - 12 Hegemonia lortzeko bidea: diskurtso hegemonikoa eraikitzea
 - 13 Hegemonia eta Subjektu politikoak
 - 15 Abertzaletasunak, subjektu independentista egituratze bidean,
eman du eman zezakeen guzia
 - 18 Hegemonia independentista: dikotomiak birdefinituz,
bide berri bat independentismora
 - 21 Aipatutako bibliografia



Documentuak 23

2013ko apirila
www.mrafundazioa.org
[@mrafundazioa](https://twitter.com/mrafundazioa)

Unai Apaolaza Amenabar

Laburpena

Lan honen izenburuak, 1985. urtean Ernesto Laclauk eta Chantal Mouffek kaleratutako *Hegemony and socialist strategy* liburuari egiten dio zuzeneko erreferentzia. Filosofia politikoaren baitan mugarriztat hartu daitekeen lan horrek, Antonio Gramscik birdefinitutako hegemonia kontzeptuari beste buelta bat eman eta hegemoniaren logikaren bidez helburu politikoak lortzeko estrategia berriak marrazten laguntzen du. Liburu horretan, strategiaren eraikitzea sozialismoari begira egindakoa da, baina aurrerago ikusiko dugun moduan, hegemoniaren logikak, edozein helburu duen estrategia politikoa eraikitzeko balio lezake; faxismotik hasi eta komunismoraino.

Lan honekin hiru asmo nagusi ditut; lehenik, hegemonia kontzeptuaren irakurketa baten alde egingo dut, jarraian, hegemonia kontzeptuaren irakurketa horren alde egiteak estrategia politikoan izan ditzakeen onurak aztertzeari ekingo diot, eta, azkenik, gurerara etorritz, esandako guzua euskal estatua helburu duen estrategia politikoari txertatzen saiatuko naiz.

Estrategia politiko garaileak

Munduan zehar azken ehun urteetan hainbat herri independentzia lortu edo boterea hartu duenean, askatasunerako desirak dituzten munduko beste herrialdeek inbidia puntuarekin begiratu eta galdera bat egin diote beraien buruari: “Nola egin dute hori lortzeko?”. Formula magikoaren axio-

* Lan honen jatorrizko bertsioa Lapiko Kritikoa kolektiboko *HAUSNART* aldizkarian argitaratu zen, 2012ko abenduan. Manu Robles-Arangiz fundazioak bere eskertza agertu nahi die autoreari eta kolektiboari lan hori itzuli eta argitaratzeko agerturiko prestutasuna.

ma eta legeen bila ekin diote maiz herrialde zapalduetako ekintzaile politikoek, azkenean jendarteen funtzionamendua eta makinena berdina ez dela konturatu diren arte. Osagai konkretu batzuk edukizetik, ezin ondoriozta liteke emaitza jakin bat jendarteen logiketan. Hori guztia frustrazio handi baten modura ere ikusi izan dute herrialde zapalduetako ekintzaileek, pentsatuz, arrakasta izan duen beste herrialde bateko baldintza “objektibo” berak ez izatean, helburu politikoak urrutiratu egiten zirela. Eta frustrazioan ez erortzeko, sarri, herrialde zapalduetako ekintzaile politikoek, helburu politikoen alde borrokatu beharrean, ez dakit zein liburu edo formula magikoetan deskribatzen diren baldintza objektiboak lortzera mugaratu dute ekintza politikoa.

Formula magikorik ez egoteak, etsigarria bainoago, pozgarria behar du izan statu quo-a aldatu nahi dutenentzat; jendarteen logikak, faktore objektiboetan baino, subjektiboetan indarra jartzera bultzatzen baitu. Helburu politikoak lortzeko ardura eta pisu guzia jendarteko pertsonengan jartzen baitu, ez jendarteak kontrolatu ez ditzakeen lege “objektibo” eta “unibertsaletan”.

Esan bezala, munduko zoko batean funtzionatu duenak ez du zergatik munduko beste alde batean emaitza onik eman behar. Dena dela, arrakasta izan duten beste esperientzietatik baliagarriak izan daitezkeen irakaspenak atera daitezke. Irakaspen horietan lehenengoa eta garrantzitsuena subjektu politikoarena da; derrigorrezkoa da jendartearen gehien-goia helburu politiko konkretu baten alde egotea. Askapenerako subjektu politikoak gehiengo ahalik eta zabalena behar du izan.

Garaipena lortu duten herrialdeek subjektu politikoa zabaltzeko erabili duten bideari begiratzen badiogu, segituan konturatuko gara esentzietatik eta partikularitasunetik alde egitean lortu dutela subjektuaren zabaltzea, eta hori egiteko hegemoniaren logika erabili dutela.

Los objetivos de cualquier grupo en la lucha por el poder solo podrían lograrse si este grupo operara hegemónicamente sobre fuerzas mas amplias que sí mismo, que, a su vez, cambiarían su propia subjetividad. Es en tal sentido que Gramsci habló de voluntades colectivas. Este populismo socialista está presente en todas las movilizaciones comunistas exitosas de ese periodo. La afirmación de Zizek de que el populismo –entendido en este sentido– es incompatible con el comunismo carece de todo fundamento. ¿Qué otra cosa estaba haciendo Mao en la Larga Marcha que crear una identidad popular más vasta, hablando incluso de “contradicciones en el seno del pueblo”, introduciendo así una categoría, pueblo, que hubiera sido anatema para el marxismo clásico? Y podemos imaginar los resultados desastrosos que hubiera obtenido Tito, en la Yugoslavia nativa de Zizek, si hubiera hecho una estrecha apelación a los trabajadores en lugar de llamar

a las vastas masas populares a resistir la ocupación extranjera. En un mundo heterogéneo, no hay posibilidad de acción política digna de ese nombre a menos que la identidad sectorial sea concebida como el núcleo y el punto de partida en la constitución de una voluntad popular mas amplia. (Laclau,2008:54-55)

Lan honen xede nagusia, hegemoniaren logikak nola funtzionatzen duen eta berau subjektu independentista indartzeko nola erabili daitekeen aztertzea da.

Zertaz ari gara hegemonia diogunean? (genealogia labur bat)

Hegemonia dugu diskurtso politikoetan gero eta gehiagotan entzuten ari garen terminoa. Kontzeptu horren sorrera XIX. mendean kokatu behar dugu, errusiar sozialdemokraziaren eskutik, hain zuzen ere. Geroago, Leninismoak erabili zuen eta Antonio Gramscik erabateko zentraltasuna eman zion. Politikoaz arduratzen diren gaur eguneko autoreen artean ere, maiztasunez erabiltzen den kontzeptua dugu.

Marxismo klasikoak zuen historiaren ikuspegi teleologikoaren arabera, jendarte guzkiek fase batzuk igaro behar zituzten azkenik komunismora iristeko, antagonismoak desagertuko liritekeen jendarte batera iristeko alegia. Bide horretan, kapitalismoa komunismora heltzeko derrigorrean igaro beharreko fasea litzateke. Hortaz, jendarte kapitalistak, pre-kapitalistak baino gertuago leudeke komunismotik. Logika mekaniko horrek berezko lege batzuen ondorioz mugituko litzatekeen makina bat bailiran ulertzen zituen jendarteen bilakaerak. Lege unibertsal horiek ekonomiarenak liriteke. Baina subjektibotasuna alde batera uzten duten teoria politikoak jendarteetako gertakizun asko azaltzeko baliabiderik gabe gelditzen dira. Hegemonia kontzeptua marxismoak zuen desfase horri irtenbide teorikoa emateko erabiltzen hasi zen.

Marxismo klasikoak jendartea klasetan banatuta zegoela baieztatzen zuen eta klase bakoitzak berezko helburu politikoak zituela: langile klasekoa izate hutsak komunismoaren aldeko berezko jarrera aurreuposatzen zuen eta burgesiako izateak, aldiz, demokrazia liberalaren aldekoa. Identitate horiek, hortaz, identitate estatikoak edo esentzialistak liriteke. Kontua da, komunismoaren bidean derrigorrean demokrazia liberaletik igaro behar zela kontsideratzen zuenez marxismo klasikoak, eta Errusian bederen bertako burgesia ahula zenez, ez zuen indarririk Zarra kendu eta demokrazia liberala ezartzeko. Hortaz, langile klaseak helburu politiko moduan demokrazia liberala izateak sortzen zituen kontradikzioak gaindi-

tzeko egin zen hegemoniaren inguruko lehen teorizazioa. Teorizazio horrek klase bakoitzak bere helburu estrategiko “berezkoak” zituela aurre-suposatzen jarraitzen zuen, baina momentu konkretu batzuetan, Leninen terminologiari jarraituz, “klaseen arteko aliantza” bat gertatu zitekeen. Aliantza hori, beti ere, behin behinekoa eta helburu politiko bat lortu bitartekoa litzateke; behin helburu politikoa lortutakoan, klase sozial bakoitzak bere helburu “berezkoak” eutsiko lieke; demokrazia liberala burgesiaren kasuan eta komunismoa langile klasearenean. Ikuskera horrek identitate politikoak esentzien arabera definitzen direla ulertzen du, hau da, klase sozial batekoa izate hutsagatik helburu konkretu batzuen aldeko zarela suposatzen du.

Antonio Gramsci da hegemoniaren kontzeptuari dimentsio berri bat emanez estrategia politikoak ulertzeko eta eraikitzeko ikuspegi berri bat ezartzen duena. Jada ez du klase sozial bateko parte izateak borondate politiko konkretu bat ematen, borondate politikoak esango du zer “zaren”. Ñabardura izugarria.

Gramscik hegemonia “zuzendaritza politiko, intelektual eta moral” moduan definitzen du. Zer esan nahi du horrekin? Finean, hegemonia izatea nagusitasun politikoa izatek harago doala, nagusitasun intelektual eta morala izatean datzala, alegia. Hortaz, hegemonia edukitzeak nagusitasun moral eta intelektuala edukitzea esan nahi du. Honela azalduko digu David Howarthek puntu hau:

Contra el objetivo de Lenin de construir alianzas provisionarias entre las distintas clases para acabar así con el dominio clasista, Gramsci argumenta que las clases sociales particulares deben trascender sus mezquinos intereses económicos y pergeñar una ideología o “sentido común”. (...) Esto significa que las diferentes clases y grupos sociales deben llegar a compartir un arsenal común de objetivos políticos basado en nuevos conjuntos de creencias y prácticas que forjen una “voluntad colectiva”. (Howarth, 2008:319)

Laclauk Gramsci azaltzerakoan argiago uzten du Hegemoniak alor moralean funtzionatu behar duela.

Es en este movimiento del plano “político” al “plano intelectual y moral” donde se opera la transición decisiva hacia un concepto de hegemonía que va mas allá de la “alianza de clases”. Porque si un liderazgo político puede establecerse sobre la base de una coincidencia coyuntural de intereses que mantenga separada la identidad de los sectores intervinientes, un liderazgo intelectual y moral supone que hay un conjunto de “ideas” o “valores” que son compartidos por varios sectores -en nuestra terminología, que ciertas posiciones de sujeto corten transversalmente a varios sectores de clase. Un

liderazgo intelectual y moral constituye para Gramsci una síntesis mas alta, una "voluntad colectiva" que, a través de la ideología, pasa a ser el cemento orgánico unificador de un "bloque histórico". (Laclau/Mouffe,1985:116)

Gramscik adierazten du "borondate kolektibo" hori ezin eratorri daitekeela logikoki norbanakoak jendartean izan dezakeen posizio edo baldintza objektiboetatik (klasea, kultura...). Borondate kolektibo hori subjektiboa da eta, beraz, subjektibitate horretan egin beharko da indarra. Eta indarra egi-teko modurik eraginkorrena alor moralean aritzea litzateke.

Unibertsalek, politikan, moralki ona dena adierazten dute

Baina, zer da morala? Morala zer den azaltzeak luze joko liguke baina 2. hezkuntzako etikako klaseetako lehen egunean ematen den azalpenarekin oraingoz nahikoa izango dugula iruditzen zait: morala pertsona guztiok ekintza (zentzu zabalenean) konketuak onak edo txarrak diren baloratze-ko dugun neurria da. Neurri edo araudi hori bizi garen garai historiko eta inguruak baldintzatutakoa da.

Hortaz, eta Gramscirekin jarraituz, hegemonia batez ere morala dela dionean, nagusitasun politikoak izateko derrigorrezkoa dela arau moralean neurria ezartzea ere esaten ari zaigu. Modu simple batean esanez, defendatzen dituzun helburu politikoak justuak, demokratikoak... hau da, onak direla eta arerioaren helburu politikoak injustu, antidemokratiko... txarrak direla lortzea da hegemonia lortzea.

Politikan, unibertsalak (berdintasuna, justizia, demokrazia...) positiboki identifikatzen dira eta partikularrak (momentu historiko konketu batean jendarte konketu batek izan ditzaken eskari politikoak) gehienetan negatiboki identifikatzen dira. Unibertsalak onak eta partikularrak txarrak (termino moralak biak) direla edozein diskurtso politikiton esplizituki edo inplizituki egiten den identifikazioa da. Helburu politiko "legitimoa" (moralki ona) unibertsala dena litzateke.

Hegemonia edo partikularra(k) unibertsal bilakatzen d(ir)enekoa(k)

Jean Paul Sartrek Burgoseko epaiketaren karira Gisèle Halamik idatziriko Le procès de Burgos liburuari hitzaurre sonatua egin zion. Hitzaurre horretan, batez ere ETA egiten ari zen sozialismoa eta nazionalismoaren (unibertsala bata partikularra bestea) arteko sintesiari aterki teorikoa eman eta ideia garrantzitsu batzuk azalerratu zituen. Bertan, ETAREN borroka aitza-

kiatzen hartuta, unibertsalaren eta partikularren arteko gogoeta interesgarria egin zuen Sartrek.

Espainiar ezkerren (eta Europakoak ere) kultura eta hizkuntzaren aldeko borroka sozialismoaren aldeko borrokarekin bateraezina zela zioen. Sartre planteamendu hori tranpatia zela azpimarratzen saiatu zen aipatu hitzaurrean. Horretarako, bi klaseko unibertsalak zeudela baieztatu zuen, unibertsal abstraktuak alde batetik eta unibertsal konkretuak bestetik. Espainiar ezkerren postura, unibertsal abstraktuaren barnean kokatu zuen. Euskaldunok, berriz, sozialismoa (unibertsala) beraien kultura eta hizkuntzatik (partikularra) eraiki nahi zutela azpimarratuz, unibertsal konkretuaren barruan kokatu gintuen, gaineratuz unibertsala lortzeko bide bakarra partikularretik abiatzea zela.

Unibertsal abstraktuak, maila teorikoan bakarrik existitzen diren kontzeptuak lirateke; unibertsal konkretuak, aldiz, momentu historiko batean pertsona multzo batek sortzen dituen unibertsalak lirateke. Horrela, unibertsala (berdintasuna, demokrazia, justizia, askatasuna, bakea...) hezur-mamitzeko modu bakarra unibertsal konkretua dela baieztatu zuen Sartrek. Hau da, justizia lortzeko bide bakarra, adibidez, egoera historiko konkretu batetik abiatzea litzateke. Agerian jarri zuen unibertsala gauzatzea eskari partikular bat(zu)ek justizia, demokrazia, berdintasuna, askatasuna... sinbolizatzen du(t)enean bakarrik lortu daitekeela. Egoera partikular bat(zu)ekin erlaziorik ezean, unibertsala ezin gauzatu liteke, edukirik gabeko unibertsaltasuna litzateke, abstraktua –etxea adreiluz, harriz, lastoz, egurrez... eraiki daiteke eta denak dira etxe, ezinezkoa dena inongo materialik gabe etxea eraikitzea da-. Unibertsalaren existentziaren baldintza, hortaz, eskari politiko partikularrek “kutsatua” izatea da. Honela azaldu zuen Sartreren bikotekidea zen Simone de Beauvoirek gogoeta horren muina:

Burgosko Epaiketaren ETako euskal kide batzuk auziperatu ziren. Francok Estatuaren aurkako konplot baten errudun jo zituen. Begirale gisa hartu zuen parte Gisèle Halamik, eta Gallimard-enean argitaratu zuen txosten orokorra liburu batean. Hitzaurre bat eskatu zion Sartreri, eta honek pozarren onartu zuen berorren idazketa. Euskaldunen arazoa zedarritu zuen, berorien borroka kontatu, eta ETaren kondaira bereziki. Sutan salatu zuen zampaketa frankista, oro har; eta partikulariki Burgosko Epaiketa nola antolatuta eta burutu zen. Honakoan, adibide konkretu bat oinarri, oso barruan zerabilen ideia bat azaltzeko aukera izan zuen. Alegia, funtsean zetzan kontraesana argitzeko. Batetik, unibertsal abstraktua dago, gobernuak eta enparauek aiputan izan ohi dutena; eta, bestetik, unibertsal baku-

na eta konkretua, hezur-haragizko gizakiez osatutako herrietan aurkitzen dena. Hauxe da –zioen Sartrek- kolonizatuen iraultzetan mamitu nahi izaten dena –kanpotik zein barrutik- eta hauxe da balio duena, hain zuzen. Zeren-eta gizakiak, beren egoeran, beren kulturaren eta beren hizkuntzan hartzen baititu; eta ez kontzeptu huts gisa. Sozialismo zentralizatzaile eta abstraktuaren kontra, Sartrek beste sozialismo bat aldarrikatzen zuen, deszentralizatzaile eta konkretua. Horixe da ETAk zapaltzaileen aurka kontrajartzen duen euskal unibertsaltasun berezia. Hain zuzen gizaki sozialista sortu beharko litzateke; bere lurrian, bere hizkuntzan eta bere ohitura berrituetan funtsatua. Horrela lortuko da, eta ez bestela, pixkanaka, gizona bere produktuaren produktu izateari utzi eta gizonaren seme izatea. (Txillardegia,2006:35-36)

Unibertsal abstraktuaren eta unibertsal konkretuaren bereizketa unibertsalaz eta partikularraz aritzerakoan sarri agertzen den bereizketa dugu. Adibide moduan Zizekek Argia aldizkariari erantzundako elkarrizketan esandakoak.

Unibertsaltasunaren alde nago. Baina unibertsaltasunak ez du zure partikularitasuna zokoratzen; kontua ez da zure partikularitasunari uko egitea; alderantziz, zure partikularitasuna ikusi behar duzu unibertsalean parte hartzeko bide bezala. Ezker unibertsalistaren ideia faltsua da, gure identitateaz ahaztu behar dugula, inor ez baita bizi espazio abstraktu batean. (Zizek,2010)

Beraz, unibertsala (berdintasuna, demokrazia, justizia, askatasuna, bakea...) hezurmamitzeko modu bakarra unibertsal konkretua da. Demokrazia bakarrik esateak ez du ezer esan nahi ez badugu demokrazia mota hori leku eta denbora jakin batean kokatzen. Justiziaren kontzeptuarekin eta bakearenekin berdinduta, ez badugu partikularrekin konkretatzen, bere horretan, ez du ezer esan nahi edo edozer esan nahi du. Gogoratu, Francok, gerraren bukaeraren 25 urteak ospatzeko “25 Pake urte” kanpainari jarri zuela abian. Edo Frankismoak bere erregimena demokrazia organiko bezala izendatzen zuela.

Unibertsala, beraz, momentu konkretu batean nagusitasuna lortu duen partikularra besterik ez da. Hegemoniarako borroka, hortaz, norberaren taldeak lehenesten dituen partikular horiek unibertsal bilakatzeko borroka da. Unibertsala mozturroturiko partikularra da, hori baita unibertsalaren existentziaren baldintza. Laburtuz, unibertsala hegemonia lortu duen partikularra da, horrela, hegemonia partikular bat unibertsal bezala ikusten eta onartzen denean gertatzen da. Hau da, eskari politiko partikular batek demokrazia, justizia, berdintasuna... adierazten dituen gertatzen da momentu hegemonikoa.

Así. La expansión imperialista Europea tuvo que ser presentada en términos de una función universal civilizadora, modernización, etc. En consecuencia, las resistencias de otras culturas fueron presentadas, no como luchas entre identidades y culturas particulares, sino como parte de una lucha omni-baricante y epocal entre universalidad y particularismos- la noción de pueblos sin historia expresa precisamente la incapacidad de estos para representar lo universal. (Laclau,1995:43)

Para Gramsci, no obstante, la única universalidad que la sociedad puede lograr es una universalidad hegemónica, -una universalidad contaminada por la particularidad-. (Laclau,2003:56)

Hegemonia: Unibertsalak norberari eta partikularrak arerio politikoari egozteko gaitasuna

Nahiz eta gaur egun, sarri, hegemonia modu kuantitatiboan erabili, eta zehazkiago hauteskudetan beste alderdi politikoetakoek baino bozka edo ordezkari gehiago ateratzearekin identifikatu, hori egiteak hegemonia kontzeptuaren logika gaizki ulertzea eta ondorioz erabilgarritasuna kamusteak dakar. Hegemoniarik gabeko hauteskudetako nagusitza posible da, baina kasu horretan, nagusitasuna, trapuzko hankak dituen elefantearena litzateke eta neguaren gogorrean hego haizeak irauz lezakeena irauz luke. Hegemonia edukitzeak ekarriko duen hauteskudetako (erreferendum) nagusitzak aldiz, elefantearen hankak hezur-haragitutako ditu, udaberria ekarriko du.

Hegemoniarako borroka jendarteak izango duen neurria ezartzeko borroka da; jendarteak erabiliko dituen betaurrekoak graduatuko baititu. Hegemoniarako borroka “normala dena” eraikitzeko borroka da. Jendarte batek izango dituen balioak marrazteko borroka da.

Behin hegemonia lortu eta gero, helburu politikoak kasik borroka politikorik gabe lortu daitezke; jendarteak “normal” jokatzen duenean hegemonikoa denaren alde egingo baitu. “Normala” den hori “apolitiko” da; hegemonikoa denaren alde egitea “normala” denaren alde egitea denez, hori ezin kontsidera daiteke ekintza politikoa, ekintza morala baizik. Zehazkiago, ekintza moral zuzena. Ekintza politikoa baino, “normal” “zentu onez” “gizalegez”... jokatzea litzateke.

De modo que la lucha por la hegemonía ideológico-política es siempre una lucha por la apropiación de los términos “espontáneamente” experimentados como “apolíticos”, como términos que trascienden los límites políticos. (Zizek, 2001;191)

Guzti hori adibide konkretu batekin adierazteko, pasa den mendeko 90. hamarkada hasieran, Euskal Herrian eraiki zen eta hegemonia maila altuak lortu zituen diskurtso bati erreparatuko diogu: euskal jendartea indarkeria zale eta demokraten artean zatitzen zuen diskurtsoari, alegia. Diskurtso hori eraiki zutenek, jendartea posizio politikoen arabera zatitu beharrean, posizio etikoaren arabera banaketa egin zuten eta bereizketa hori politika baino lehenagokoa zela azpimarratu zuten. Zatiketa hori egiteak parte okerrera tokatzen zitzaieinei, “biolentoei”, politikan aritzeko eta eragiteko ahalmena erabat kamustu zien. Baina posizio politikoa baino lehenagokoa omen den zatiketa hori, berez, izugarritzko erreminta politikoa da, eta hori du bere helburua; etsai politikoari ahalmen politikoa ahalik eta gehien murriztea. Biolentoak eta demokratak dikotomia independentismoa indargabetezko estrategia politikoa izan zen, ez giza eskubide unibertsal horien aldeko estrategia.

Posizio politikoen arabera zatiketa egin beharrean posizio moralekin dikotomia sortzea posizio hegemonikoa duten mugimendu politiko guziek egiten dute. Horretarako, hegemonia duenak bere burua unibertsalen ordezkari eta etsai politikoa partikularrena dela baieztatuko du. Logika politikoa erabili beharrean hegemonia duenak logika morala erabiliko du.

Lo que ocurre es que actualmente lo político se expresa en un registro moral. En otras palabras, aún consiste en una discriminación nosotros/ellos, pero el nosotros/ellos, en lugar de ser definido mediante categorías políticas, se establece ahora en términos morales. En lugar de una lucha “izquierda y derecha” nos enfrentamos a una lucha entre “bien y mal”. (Mouffe, 2007,13)

Hegemonia lortzeko borroka objektibitateak lortzearen borroka da; “egiak” zeintzuk diren finkatzearen borroka da. Hegemonia edukitzeak “egiaren” jabe zarela esan nahi du. Unibertsalaren jabe zarela.

Hegemonia horrela ulertzea ekintzarako dei bat da. Edozein mediocrekin eraginkor izateko deia da. Eraginkor izatea jendartearen gehiengo (borondate kolektiboa) zure koordinatetara eramatea da. Horrek ez du jendartearen gehiengoak zure helburu politikoekin bat egiten duenik esan nahi, ez derrigorrean. Hori baino lehenagokoa eta oinarritzkoagoa da, zuk markatzen duzun joko zelaian eta zuk jarritako arauekin jolasten ari direla esan nahi du. Bushek ez al zuen Afganistan eta gero Irak demokraziaren eta justiziaren izenean inbaditu (inbaditzaileek inbaditzearen ekintzari jarritako izena lehenik “justizia infinitua” eta gero “askatasun iraunkorra” izan zen, beti ere kontzeptu unibertsalak)? Nahiz eta ekintza hori erabat biolen-

toa izan eta milaka eta milaka hildako eragin. Horra hor hegemonia izate-aren onura.

Hegemonia lortzeko bidea: diskurtso hegemonikoa eraikitzea

Hegemonia alor moralean kokatzen den baina politikan eraginkorki eragiteko pentsatuta dagoen kontzeptu gisa definitu dugu. Hori egiteko, eskari politiko partikularrak unibertsalak bailiran aurkezten dira, eta, ondorioz, moralki onak bilakatzen dira. Esan bezala, unibertsalak estuki lotuak daude moralarekin, unibertsalak onak eta partikularrak txarrak bereizketa esplizituki eta inplizituki diskurtso guzietan agertzen baita. Hegemonia izatea, beraz, unibertsalak zuretzako hartu eta partikularrak arerioari egozteko gaitasuna izatea da. Joko zelaia marrazteko gaitasuna da, beraz, hegemonia. Baina, nola egin joko zelaia marraztu eta jokoaren araudiak idazteko? Diskurtso hegemoniko bat eraikiz.

Diskurtso bat ez da liburuetan edo egunkarietan idatzia dagoena edo hizlari batek pulpitutik botatakoa bakarrik, hori izateaz gain, askoz gehiago ere bada. Eliteek egiten dituzten kontakizunez gain, diskurtsoak, komunitate batek dituen usteak, mitoak, balioak... eta horiek denak eragiten dituzten ekintzak ere sartzen dira diskurtsoaren barruan.

El discurso constituye el terreno primario de constitución de la objetividad como tal. Por discurso no entendemos algo esencialmente restringido a las áreas del habla y la escritura, como hemos aclarado varias veces, sino un complejo de elementos en el cual las relaciones juegan un rol constitutivo. Esto significa que esos elementos no son preexistentes al complejo relacional, sino que se constituyen a través de él. Por lo tanto, "relación" y "objetividad" son sinónimas. (Laclau, 2005;92)

Beraz, diskurtso baten alde egiten dutenen nahia diskurtso hori egon daitzekeen beste diskurtsoen gaineratik jartzea da. Hau da, diskurtso hegemoniko bihurtzea; kasu horretan diskurtso horrek objektibitateak sortuko baititu. "Egiak" sortuko ditu, alegia. Horrela, jendarte konkretu batean hegemonikoa den diskurtsoak finkatuko du egiazkoa zer den eta zer ez, zer dagoen ondo eta zer ez, eta, azkenik, zein helburu politiko lehenetsi eta zein ez. Diskurtsoak, hortaz, ez dira deskriptiboak, errealitatea aldatu edo bere horretan mantentzeko tresnak dira. Statu quo-a aldatu nahi duenak diskurtso hegemoniko bat eraikitzen ez badu ezinezkoa izango du ezer aldatzea.

Orain arte esandakoekin jarraituz, diskurtso batek hegemonikoa izan nahi badu, behin eta berriro errepikatu beharko du segitzen dituen helbu-

ru politikoen unibertsaltasuna. Errepikapenak inplizituki eta esplizituki egindakoa beharko du izan. Eskari politiko partikularrak badira azpimarratzen direnak, diskurtso hori ez da sekula hegemonikoa izango. Eta ez da hegemonikoa izango soilik partikulartasunari erreferentzia eginez jendartearen “borondate kolektiboa” finkatzea ezinezkoa egiten delako. Eta, ondorioz, helburu politiko baten aldeko gehiengoa izango duen subjektu politikoa eratzea oso zaila egingo da. Zaila egingo da diskurtso batek hegemonia mailarik ez badu beste posizio politikoetan dagoen jendea bereganatzea ezinezkoa egingo zaiolako.

Diskurtso batek hegemoniko bilakatzeko, unibertsal abstraktuaren bidea erabili behar du; defendatzen duen helburu politiko partikularrak unibertsalekin identifikatuko baititu jendartearen gehiengoak. Soilik bere eskari politikoak (partikularrak) kontzeptu unibertsalen bidez adieraztea lortzen duten subjektu politikoek, hegemonia lortzen dutenek, alegia, lortu ahal izango dituzte helburu politikoak. Eta hori lortzeko bidea diskurtso bat eraiki eta berau hegemoniko bilakatzeko da.

Hegemonia eta Subjektu politikoak

Pertsona multzo batek jendartean eragiteko nahi konkretu bat duenean, identitate politiko konpartitua duela esango dugu. Jendartean eragitea jendarte zehatz bateko norbanakoetan borondate edo nahi bat txertatzea litzateke. Identitate politiko bat konpartitzen dutenek beraien identitatea jendarteko beste pertsonetara zabaltzeko egiten den ekintza litzateke politika.

Lan honen hasieran esan dugun moduan, edozein helburu politiko lortzeko lehenengo baldintza helburu politiko konkretu horren aldeko subjektu politikoak jendarte konkretu batean nagusitasuna izatea da, hau da, jendarte konkretu bateko ahalik eta pertsona gehien helburu politiko baten alde izatea. Subjektu politikoak eraiki eta zabaltzeko diskurtso politikoak erabiltzen dira. Erabili daitezkeen diskurtsoen artean, darabilten logikari erreparatuz gero, gehien entzun ditzakegunak hegemoniaren logika, bate-tik, eta esentzien logika, bestetik, erabiltzen dutenak dira.

Diskurtso esentzialisten logikak subjektu politikoa a priori marraztu nahi du; faktore objektiboekin mugatu nahi du politikoa den subjektua. Horrela, faktore objektibo partikular baten jabe izateak, logikoki, borondate politiko bat edukitzera eramaten zaituela ondorioztatzen dute diskurtso esentzialista ezberdinek. Hizkuntza bat erabiltzeak, klase sozial batekoa izateak... borondate politiko konkretu bat izatera determinatzen zaituela

baieztatzen dute diskurtso horiek. Honela azaltzen digu Ernesto Laclauk diskurtso esentzialisten ilogikotasuna:

La búsqueda de la “verdadera” clase obrera es un falso problema, y como tal carece de toda relevancia teórica o política. Lo anterior no implica, evidentemente, que haya una incompatibilidad entre clase obrera y socialismo sino la afirmación, muy distinta, de que no es posible deducir lógicamente intereses fundamentales en el socialismo a partir de determinadas posiciones en el proceso económico. (Laclau, 1985:112)

Diskurtso esentzialisten akats nagusia politikotasuna ukatzea litzateke; subjektu politikoen eratzea borondateetik at kokatzen dutenez, ekintza politikoaren bitartez borondate politiko diferenteak norberaren parametroetara gerturatzeko aukera ukatzen dute. Ikuskera horretatik abiatuta, subjektu politikoak estatikoak direla ondorioztatu behar da derrigorrean; ez hazi eta ez murriztu egiten direla, alegia. Azken finean, ikuskera esentzialistak, subjektu politikoen gorabeherak ukatzen dituztenez, gauzen egoeraren justifikazio hutsa dira; ez dira helburu politikoak lortu ditzaketen subjektu politikoak eratzeke gai. Diskurtso esentzialistak politika ukatzen duten diskurtsoak dira; politika, neurri handi batean, borondateak eskuratzeko borroka baita.

Subjektu politikoa nahi politikoak zedarritzen du, ez borondateari iskin egiten dion bereizgarri objektibo batek. Helburu politiko beraren alde daudenek osatuko dute subjektu politikoa eta hori izango da baldintza bakarra; helburu politiko beraren alde egotea, alegia. Hori da hegemoniaren logikak azpimarratzen duena, eta horrek borroka politikoa enfokatzeko bide berri bat marrazten du; borondate politikoa (subjektiboa), eta ez faktore objektiboetan indarra egin behar dela dioen bidea.

Hipotesi moduan, har dezagun faktore objektibo konkretu bat izateak borondate politiko batera determinatzen gaituela: borroka politikoa pertsona guziok faktore objektibo bera konpartitzera mugatuko litzateke, eta hori, bistan denez, zorakeria hutsa da.

Hegemoniaren logikak, subjektu politikoez aritzerakoan, ezer ere ez dela fixoa esango digu. Gaur bozkatzen ez duenak bihar bozkatu lezake, gaur kapitalismoa onartzen duenak bihar sozialismoaren aldeko hautua egin lezake, gaur gobernu zapaltzaile baten pieza bat besterik ez dena bihar gobernu horren etsairik handiena bilakatu daiteke, eta, azkenik, gaur unionista dena bihar independentista bilakatu daiteke. Hori da hegemoniaren logikak mahi gainean jartzen diguna, eta ondo erabiliz gero, onura politikoak ekarriko dizkio beronen alde egiten duen subjektu politikoari. Eta alderantziz, logika esentzialista erabiliz gero, subjektu politikoa murriz-

tuz joango da; zabaltzeari baino kontserbatzeari ematen baitio indarra. Eta zabaltzen ez den subjektu politikoaren desagertzea denbora kontua da.

Hegemoniaren ideiak, hortaz, borrokatzera bultzatzen gaitu, determinismoetatik at, faktore objektiboen eta borondate politikoen arteko lotura logikorik egin gabe, helburu politikoen lorpena egiten dugunaren baitan jartzen du.

Hegemoniaren ideia honek erakusten digu, hortaz, subjektu politikoak zabaltzearen mugak ez direla objektiboak, ikuskera esentzialistak baieztatzen duen moduan, subjektiboak baizik. Eta subjektiboak diren heinean, zabaldu edo estutu egin daitezkeela. Hegemoniarako borroka subjektu politikoen, borondate kolektiboaren, zabaltzeko borroka da, eta helburu politikoak lortu nahi dituen subjektu politikoak zabaldu egin behar du derri gorrean.

Abertzaletasunak, subjektu independentista egituratze bidean, eman du eman zezakeen guzia

Nazionalismoaz aritzerakoan, puntu batean behintzat gaiaren inguruko adituek bat egiten dute: nazionalismoa modernian sorturiko ideologia edo mugimendua da. Eta zehazkiago XVIII. mende bukaera eta XIX. mende hasiera artean. Eztabaida gehiago sortzen duena, aldiz, nazionalismoa sortu aurretik nazioen existentziarena da. Gai hori, naziotasunaren inguruko arazo gehienak bezala, dikotomia baten baitan planteatzen da. 1) Naziotzat diskurtso nazionalistak sortutakoak bakarrik kontsideratu daitezke; 2) Diskurtso nazionalista sortu aurretik nazioak egon bazeuden.

Aro Premodernoa nazioak egon baziren, garaiko idazki askotan ikus daitezkeen moduan. Nazioa hitzun komunitateak osatzen zuen gehienetan, hau da, hizkuntza bera egiten zuten pertsonak. Pertsona horiek izan zezaketen komunitate horretakoa izatearen kontzientzia edo ez, horrek berdina zuen. Beraiek kontziente izan gabe naziokoak izan zitezkeen. Haritz batek bere haritztasunaren kontzientziarik ez duen bezala (besteak beste, haritza kontzeptu bezala pertsonok sortu dugulako), alemanera hitz egiten zuen pertsonak bere naziotasunaren kontzientziarik ez zuen. Dimentsio politikorik gabeko nazioak ziren. Horrela, diskurtso nazionalistak sortutako nazioa eta Aro Premodernokoa diferenteak dira.

Hortaz, diskurtso nazionalistak nazioa sortzen duela esanez gero, orain dela 200 urte inguru sortu zen nazioaren ikuskeraz ari gara, ez Erdi Arokoaz. Nahiz eta onartu Aro Premodernoa nazioak egon bazirela, hemen kontuan hartuko duguna zela da, diskurtso politikoa den diskurtso

nazionalistak mugatzen duen eta nazioa deitzen diogun subjektu politikoa. Hau da, politikan eragin nahi duen nazioa da gure aztergaia. Asmoa ez da, hortaz, Aro Premodernoan naziorik bazen edo ez eztabaidatzea, kalapita hori antzua dela iruditzen baitzait. Azken finean, eztabaida horrek, nazioaren betierekotasunaren alde edo nazioa eraikitzen dela diotenen artekoen eztabaida ezkututzen baitu. Eta eztabaida hori, beste kasu askotan bezala, eztabaida historiko moduan aurkeztu arren, eztabaida politikoa da erabat. Eztabaida historikoz moztutako eztabaida politikoa da, hortaz.

Baina, diskurtso nazionalistaz ari garenean, zertaz ari gara? Finean nazionalismoaz. Nazionalismo diferenteek kontakizun ezberdinak egiten dituzte nazioari buruz; esango digute nazioa holakoa edo halakoa dela, hizkuntzak mugatzen duela, lurraldeak, historiak, erlijioak, arrazak, borondateak... Nazionalismoak erabiltzen dituen kontakizunek eta kontakizun horien subjektua den nazioak sortzen eta egiten dituzten ekintzei deituko diogu diskurtso nazionalista. Hortaz, nazionalismoa eta diskurtso nazionalista kasik sinonimotzat hartuko ditut.

Diskurtso nazionalistak (nazionalismoak), horrela, nazioa marraztuz, “asmatuz”, helburu politikoak errazago lortzeko subjektu politiko indartsua edo nagusia sortzea izango du xede. Euskal Herriko kasuan, subjektu independentista eratzeko estrategiak diren neurrian, independentziarako estrategiak dira.

Diskurtso nazionalista helburu politikoak lortzeko estrategia dela esan dugu, baina zergatik erabili izan da orain arte nazionalismoa eta ez beste estrategia bat? Frantziar iraultza historiako mugarririk sendoenetakotzat hartzen da. Erdi Arotik zetozen aginte eskema ezberdinen amaiera data bezala kontsideratzen da sarri. Gertakariez harago, ideien historian ere mugarririk edo sinbolo bezala agertzen zaigu iraultza burgesa. Subiranoa, teorian, bederen, “herria” zela azpimarratu zuen eta eskubideen inguruko eztabaida pil-pilean jarri. Frantziar iraultzaren ingurumarian, hortaz, subirautza herriari zegokiola eta ez jainkoak aukeratutako errege bati “asmatu” zen. Honela diosku 1789. urtean idatzitako Gizonaren eta herritarraren eskubideen adierazpeneko hirugarren artikulua: “Subiranotasun oren iturburua esentzialki nazioan datza. Inongo taldek edo norbanakok ezin dezake erabili nazioagandik berariaz sortzen ez den agintea.”

Subiranoa den herri hori nazioarekin identifikatzen da eta orduan hasien dira sortzen subiranoa den subjektu politiko berri horren inguruko errelatoak. Nazioa mitifikatzen duten diskurtsoak dira eta bertakoa izateko zer baldintza bete behar diren mugatzen saiatuko dira. Diskurtso nazionalistaren zeregina subirautza duen eta jaiotako berria den subjektu politiko horrek

nolakoa behar duen izan erabakitzea da, helburu politikoak lortzeko eraginkortasuna bilatuz. Beraz, nazionalismoaren sorrera Erdi Aroko aginte eskemen ahuldadeak utzitako espazioa betetzera dator. Modernian, hortaz, Erdi Aroko subirautza politikoa duten agenteak ahulduz doaz eta sortzen ari den subirano politiko berria, nazioa, definitu, marraztu eta moldatu nahiko dute diskurtso nazionalista ezberdinek. Nazioa estatu modernoaren printzipio legitimatzaile bilakatzen da. Eta diskurtso nazionalista edo nazionalismoa estatua justifikatu edo lortzeko estrategia bilakatzen da. Horrela, estatu propioaren eskaria (independentzia) ez da nazioa babesteko tresna, alderantziz, nazioa independentzia lortzeko edo estatua justifikatzeko estrategia da.

Euskal nazionalismoaren sorrera Euskal Herria nazioa dela baieztatzen denean gertatzen da. Abertzaletasunak, bere sorreratik, independentziaren subjektua egituratzeko modu diferenteak izan ditu, naziotasuna modu diferentean mugatu izan du, alegia. Sabino Aranaren arrazatik hasi, hizkuntza, klase soziala... eta azken urte hauetan historiarekin edo modu deterministan ulerturiko hizkuntzarekin. Saiakera horiek guztiak momentuko egoera soziologikoa kontuan hartuz egin diren estrategia politikoak izan dira; subjektu independentista egituratzeko saiakerak izan dira, beraien -tasun eta -keria guztiekin.

Abertzalea izatea kontsideratzen badugu independentista izateko derrigorrezko baldintza, lana zaildu egiten dugu subjektu independentista indartsu bat egituratzeko bidean, independentista berriak sortzeko lanari abertzale izatea gehitzen baitiogu. Gainera, diskurtso abertzale diferenteek naziotasuna definitzeko duten nahas-mahasa dela-eta, zer litzateke euskal naziokoa (independentista?) izatea? Euskara jakitea, sozialista izatea, nafarra izatea (sentitzea?). Abertzaletasuna subjektu independentista egituratzeko bitartekari baino, helburu bilakatu da sarri, independentista izateko abertzale izan behar dela derrigorrean esateraino.

Independentismora abertzaletasunetik pasatzen ez den bide bat ez bada irekitzen, gehiengo zabal bat lortzea oso zaila izango da; abertzaletasuna, subjektu independentista egituratzen lagundu ordez, subjektu independentistaren topea eta kaiola izango litzatekeelako. Independentismoak aurrera egin du edo zabaldu egin da berau unibertsalekin identifikatu izan denean. Hau da, independentismoa askatasunarekin, eskubideekin, justiziarekin, berdintasunarekin identifikatu denean. Partikular hutsekin identifikatzen denean, sarri diskurtso abertzaleek egin duten moduan, subjektu independentistak atzera egiten du.

Euskal Herriko kasuan, soilik abertzaletasunaren mugak gainditzen dituen independentismoak lortu ahal izango du bere helburua: euskal estatua.

Hegemonia independentista: dikotomiak birdefinituz, bide berri bat independentismora

Marratzu dezagun, hortaz, oso axaletik bada ere, zer izango litzatekeen independentismoak hegemonia izatea eta nola iritsi egoera horretara.

Esan dugu hegemonia lortzen duen diskurtso politikoak, joko zelaia eta jokatzeko arauak definitzeko gaitasuna duela, eta arau horiek jendartearen gehiengoan dutela eragina. Horrek ez du esan nahi jendartearen gehiengoak diskurtso hegemonikoak lehenesten duen subjektu politikoaren alde egiten duenik, ez, jendartearen gehiengoa diskurtso hegemonikoak markatzen duen kontzeptu, balio, aurreiritziekin... aritzea behartuta dagoela baino ez du esan nahi. Baina horrek guztiak, epe ertain eta luzean, diskurtso hegemonikoak lehenesten duen subjektu politikoaren zabaltzea dakar.

Diskurtso independentista hegemoniko batek independentzia, helburu politiko moduan, positiboa, ona dela azpimarratu behar du, eta hori egiteko bidea unibertsalak erabiltzea dela jada esan dugu. Independentismoa unibertsalekin identifikatu eta berauen berme dela azpimarratu beharko du diskurtso independentista hegemoniko batek. Urtetan abertzaletasunak (subjektu independentista eratzeko estrategiak) unionismoaren joko zelaia eta arauak onartu izan ditu, eta, ondorioz, bere borroka unibertsalen defentsa gisa planteatu beharrean, partikularren defentsa moduan definitu du. Hein handi batean, unionistek ezarritako dikotomia independentistok ere irentsi egin dugu; euskal estatua nahi izatea partikularren aldeko defentsa moduan planteatu izan baita maiz. Horrela, arerio politikoari, unionismoari, unibertsalaren monopolioaren giltza oparitzuz. Horienak lirarteke, ondorioz, aukera politiko justua, demokratikoa, berdintasunaren aldekoa... hitz batean, unibertsala.

Independentismoak duen erronka nagusienetako bat dikotomia horri buelta ematea litzateke, independentzia hautu unibertsala dela eta unionismoa unibertsalen kontrakoa dela azpimarratu beharko du estatua lortu nahi duen independentismoak. Hori egiteak ahalbidetuko liguke subjektu independentistaren zabaltze izugarria. Beraz, askotan independentismoa erasotzeko erabili izan diren unibertsalen jabe egin behar gara, eta ez sarriegi gertatu den bezala unibertsalen monopolioa unionistei utzi. Hori

apurtu behar du hegemonikoa izan nahi duen diskurtso independentistak. Eta hori lortzeko, politika goitik behera markatu duten dikotomiak (demokratak/biolentoak, partikularista/unibertsalista...) aldatu beharko ditu eta independentismoak marraturiko dikotomiak plazaratu. Hori lortzen duen neurrian izango du independentismoak arrakastaren gako nagusienetako bat.

Horrela, Euskal Herriaren independentziaren alde egitea demokraziaz, justiziaren, giza eskubideen... unibertsalen aldeko borroka bilakatu behar da. Hau da, borroka hori, parametro moraletan esateko, borroka "on" bilakatu behar da; moralki hegemonikoa. Partikularrak jartzen baditugu borrokaren justifikaziotzat, ez dugu logika partikularretik unibertsalera-ko saltorik egingo. Ez dugu hegemonia lortuko eta, hortaz, ez dugu subjektu politiko nagusia lortuko, ez dugu helburu politikorik lortuko, ez dugu independentzia lortuko. Independentismoa justifikatzeko erabiltzen diren helburu politiko partikularrek unibertsalak sinbolizatzen dituzten neurrian lortuko du independentismoak hegemonia.

Dikotomia subjektu independentistak marrazteak eta marrazte horretan unibertsalak bereganatzeak bide ematen du diskurtso abertzaleak subjektu independentista zabaltzeari jartzen dizkion mugak gainditzeko. Abertzaletasunak sarri egin izan duen moduan, partikularrekin subjektu politiko indartsu bat egituratzea zail egiten baita; horrela sortutako subjektuek, eustea, hau da, ahalik eta gutxien murriztea baitute helburu. Baina subjektu politikoa unibertsalen defentsarekin identifikatzeak bide ematen du edozein pertsona bereganatzeko, ez baitago unibertsal horien alde egoteaz aparteko baldintzarik. Eta diskurtso independentista hegemonikoa independentzia unibertsalekin identifikatzea lortzen duen neurrian, independentista izateko baldintza bakarra jartzen du, hots, independentzia nahi izatea, berau askatasuna, demokrazia, berdintasuna... nahi izatea litzatekeelako.

Abertzaletasuna subjektu independentista eratzeko bitarteko izatetik helburu izatera pasatu den momentutik, independentziaren estrategiari kalte egin dio. Arestian aipatu dugun moduan, kalte egin dio subjektu independentistakoa izateari abertzale izateko baldintza gehitu baitio. Abertzaletasuna subjektu independentista eratzeko estrategia bat izan da, baina estrategia politiko guziak bezala, unean uneko egoerari erreparatu eta aldatu egin behar dira. Bestela helburu politikoa etatik urrundu egin gaitzake. Eta argi esan behar da, nazioa eratzearen estrategiak subjektu independentista zabaltzen lagundu beharrean ataka jartzen dio. Subjektu independentistaren kaiola bilakatu da.

Abertzaletasunak subjektu independentista zabaltzeari jartzen dizkion mugak gainditzeko, abertzaletasunetik pasatzen ez den eta independentismora iristen den beste bide bati aterkia emango dion diskurtso bat erai-ki beharko du independentismoak. Abertzaletasuna subjektu independentista eraikitzeke estrategia bat denez, garrantzia ez du abertzalea izateak, independentista izateak baizik. Independentismoa eta abertzaletasuna berdintzeak, lagundu orde, kalte egiten baitio subjektu independentista zabaltzeari. Independentista izan daiteke abertzale izan gabe. Hege-moniaren logikak lagundu gaitzake estrategia aldaketa horretan.

Aipatutako bibliografia

- BHABHA, Homi K. (2010) "Nación y narración. Entre la ilusión de una identidad y las diferencias culturales". Buenos Aires: Siglo Veintiuno Editores.
- HOWARTH, D. (2008): "Hegemonía, subjetividad política y democracia radical" in Critchley S. eta Marchart O. Laclau, aproximaciones críticas a su obra, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- LACLAU. E. (1985): Hegemonía y estrategia socialista. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- LACLAU, E. (1995): Universalismo, Particularismo y el tema de la identidad, <http://e-spacio.uned.es:8080/fedora/get/bibliuned:filopoli-1995-5-1C777F7B-79B6-19D3-B6B9-B7F90B382C27/univHYPERLINK> "http://e-spacio.uned.es:8080/fedora/get/bibliuned:filopoli-1995-5-1C777F7B-79B6-19D3-B6B9-B7F90B382C27/universalismo_particularismo.pdf" ersalismo_particularismo.pdf <http://e-spacio.uned.es:8080/fedora/get/bibliuned:filopoli-1995-5-1C777F7B-79B6-19D3-B6B9-B7F90B382C27/univHYPERLINK> "http://e-spacio.uned.es:8080/fedora/get/bibliuned:filopoli-1995-5-1C777F7B-79B6-19D3-B6B9-B7F90B382C27/universalismo_particularismo.pdf" ersalismo_particularismo.pdf
- LACLAU. E. (2003): Contingencia, hegemonía, universalidad. Diálogos contemporáneos de la izquierda, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- LACLAU, E.- MOUFFE C. (2004): Hegemonía y estrategia socialista, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- LACLAU, E. (2005): La razón populista, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- LACLAU, E. (2008): Debates y combates. Por un nuevo horizonte en la política, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- MOUFFE C. (2007): En torno a lo político, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica
- TXILLARDEGI (2007): Horretaz, Donostia: Elkar
- ZIZEK S. (2001): El espinoso sujeto, Bartzelona: Paidós
- ZIZEK S. (2010): <http://www.argia.com/argia-astekaria/2236/slavoj-zizek>, Argia aldizkariko 2236. alean egindako elkarrizketa.

